

Leioako Agate Deuna eguneko XXIX. Kanta Lehiaketa deitu du Leioako Udalak, honako **OINARRI** hauek izango dituen:

**1.-** Agate Deuneko lehiaketa udalerriko auzo desberdinetan zehar egingo da, **2018ko otsailaren 4an**, igandea, goizean zehar.

**2.-** Abesbatzak ahotsez eta musika tresnez osatuta egon daitezke, eta gutxienez, 12 pertsonako taldeak izan behar dute.

**3.-** Bi **kategoria** dago:

A. 16 urte.

B. 16 urtetik aurrera.

**4.-** Kantatzeko **bost** gune ezarri dira

**A Gunea: Lamiako**

Nagusien Etxea, Txopoeta, Txorierrri eta Langileria.

**B Gunea: Pinueta-Ibaiondo.**

Pinueta Kulturgunea, Cervantes plaza, beira putzegilearen estatuaren ingurua, Ibaiondo.

**C Gunea: erdigunea**

Ikea plaza, San Juan auzoa, Euskal Etxeen plaza, Jose Ramon Aketxe eta Errekalde plazak.

**D Gunea: San Bartolome/Basaez - Artatzagana.**

Artatza kalea, Negurigana, Ermita eta Artatzagana plaza.

**E Gunea: Kandelazubieta - Udondo**

Kandelazubieta, Udondoko Boulebarra

Abesbatza bakoitzak ondoen datorkion gunea aukera ahal izango du; lehenago egin beharko du eta antolakuntzari komunikatu izena ematerakoan.

Antolakuntzak izena eman duen talde bakoitzari ezarriko dio abesteko leku konkretu bat, baita ordutegi zehatza ere bai:

- A kategorian 5 guneen arteko aukeratutako gune baten leku konkretua.
- B kategorian Euskal Etxeen Plazan.

Leku horietaz gain, abesbatza bakoitzak beste leku batzuetan ere abes dezake, gunearen barruan edo gunetik kanpo.

Dirua eskatzea talde bakoitzaren ardurapean eta askatasunpean geratuko da.

**5.-** Hauek izango dira **sariak** kategoria bakoitzean:

1 - 350 euro, garaikurra eta diploma.

2 - 250 euro, garaikurra eta diploma.

3 - 175 euro, garaikurra eta diploma.

Oinarri hauetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten abesbatzek 60 euroko dieta jasoko dute.

**Sari banaketa** otsailaren 10ean, larunbata, 12:00etan eta Kultur Leioan izango da.

**6.-** **Epaimahaia** musikaren profesionalek eta musika koral eta tradizionalarekin lotutako pertsonak osatuko dute.

Epaimahai honek talde parte-hartzaile bakoitzari esleitutako guneetan emanaldia behatuko du eta bere epaia emango du honako alderdi hauek baloratu eta puntuatu ondoren:

ahotsak ondo enpastatuta egotea, perkusioaren erritmoa, ahoskatzea, bakarlariak egotea, ahotsen ñabardurak, taldeak ematen duen azken itxura, jantziak, berdintasuna, apaingarriak eta girotea.

Epaimahaiaren epaia apelaezina izango da.

Sariak eman gabe gera daitezke.

Halaber, epaimahaiak egokitzat jotzen badu, aipamen bereziak eman ahal izango dira.

**7.-** **Izena emateko epea 2018ko urtarrilaren 30ean bukatuko da, eta horrela egin beharko da:**

- **Kultur Leioako harrerara (Jose Ramon Aketxe Plaza, 11) bertaratzuz, astelehenetik ostiralera 8:00etatik 21:00etara.**
- **Posta elektronikoz: infokultur@leioa.net**
- **Telefonoz: 946072570**

Izena emateko momentuan datu hauek eman beharko dira:

- Taldearen izena.
- Taldeko arduraduna den izen-abizenak, NAN zenbakia eta kontaktua (teléfono zenbakia eta posta elektronikoa).
- Abesteko aukeratutako gunea.